

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2022ko martxoaren 19tik 25erako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2022/03/21

- **LANAREN ETA EKONOMIA SOZIALAREN MINISTERIOA. Lan hitzarmen kolektiboak.** Ebazpena, 2022ko martxoaren 9koa, Enplegu Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen den Eraikuntzaren Lan Fundazioari 2022an ordaindu beharreko enpresa-kuota ezartzeari buruzko erabakiaren akta. **4484 xedapena - 2 or.**
- **LANAREN ETA EKONOMIA SOZIALAREN MINISTERIOA. Lan hitzarmen kolektiboak.** Ebazpena, 2022ko martxoaren 9koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen den azukre-industriaren hitzarmen kolektiboa. **4486 xedapena - 48 or.**

2022/03/22

- **LANAREN ETA EKONOMIA SOZIALAREN MINISTERIOA. Lan hitzarmen kolektiboak.** Ebazpena, 2022ko martxoaren 9koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen den ostalaritzaren sektoreko estatu-esparruko V. lan akordioaren aurreraeragina 2022. urtean luzatzeko erabakia. **4563 xedapena - 3 or.**
- **LANAREN ETA EKONOMIA SOZIALAREN MINISTERIOA. Lan hitzarmen kolektiboak.** Ebazpena, 2022ko martxoaren 9koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen diren orkoien, takoiien, zirien, zolen eta egurrezko eta kortxozko kanbrilloien industrietako Estatuko hitzarmen kolektiboaren soldata berrikuspenaren eta soldata taulen 2020. eta 2021. urteetarako erabakiak. **4564 xedapena - 3 or.**

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

2022/03/23

- **EUSKADIKO ADMINISTRAZIOAK. EUSKO JAURLARITZA (LAN ETA ENPLEGU SAILA).** Arabako eraikinen eta lokalen garbiketaren sektorearentzako hitzarmen kolektiboa. **668 xedapena - 29 or.**

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2022/03/19

- **LANAREN ETA EKONOMIA SOZIALAREN MINISTERIOA. Kondekorazioak.** 153/2022 Errege Dekretua, otsailaren 22koa, zeinaren bidez onesten den Laneko Merituaren Dominari eta Plakari buruzko Araudia. **4360 xedapena- 8 or.**
- **TRANTSIZIO EKOLOGIKOAREN ETA ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN MINISTERIOA. Birkarga energetikoa.** 184/2022 Errege Dekretua, martxoaren 8koa, zeinaren bidez arautzen den ibilgailu elektrikoen birkarga energetikoko zerbitzuak ematearen jardura. **4361 xedapena - 16 or.**

2022/03/22

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. Genero indarkeria.** 2/2022 Lege Organikoa, martxoaren 21ekoa, genero indarkeriaren biktima umezurtzen babesa hobetzeari buruzkoa. **4516 xedapena - 10 or.**
- **GARRAIOAREN, MUGIKORTASUNAREN ETA HIRI AGENDAREN MINISTERIOA. Errepide bidezko garraioak.** Ebazpena, 2022ko martxoaren 18koa, Lurreko Garraiobideen Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez ezartzen diren errepide bidezko garraiolarien lan jardunaldiari buruzko gutxieneko kontrolak. **4517 xedapena - 9 or.**

2022/03/23

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. Premiazko neurriak.** 5/2022 Errege Lege-dekretua, martxoaren 22koa, zeinaren bidez egokitzen den jardura artistikoetara dedikatzen direnen lan-harremanen izaera bereziaren erregimena, bai eta halakoak egiteko behar

diren jarduera tekniko eta laguntzakoetan aritzen direnena ere, eta sektoreko laneko baldintzak hobetzen diren. 4583 xedapena - 14 or.

- **GORTE NAGUSIAK. Premiazko neurriak.** Ebazpena, 2022ko martxoaren 17koa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen den argitara dadila martxoaren 1eko 3/2022 Errege Lege-dekretuaren baliozkotze erabakia. Horren bidez, batetik, neurriak hartzen dira errepide bidezko salgaien garraioaren iraunkortasuna eta kate logistikoaren funtzionamendua hobetzeko, eta 2020ko uztailaren 15eko 2020/1057 (EB) Zuzentarauaren transposizioa egiten da -horren bidez, neurri zehatzak ezartzen dira 96/71/EE eta 2014/67/EB zuzentarauei dagokienez, errepide bidezko garraioaren sektoreko gidarien lekualdatzeetarako-; eta, bestetik, ezohiko neurriak hartzen dira obra-kontratu publikoetan prezioak berraztertzearen alorrean. 4584 xedapena - 1 or.
- **TRANSIZIO EKOLOGIKOAREN ETA ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN MINISTERIOA. Eraginkortasun energetikoa.** TED/220/2022 Agindua, martxoaren 16koa, zeinaren bidez ezartzen diren Eraginkortasun Energetikoaren Funts Nazionalera 2022an egin beharreko ekarpen betebeharrak. 4585 xedapena - 43 or.
- **KULTURA ETA KIROL MINISTERIOA. Laguntzak.** 210/2022 Errege Dekretua, martxoaren 22koa, Gazteentzako Kultura Bonuaren erregulazio arauak ezartzen dituen. 4586 xedapena - 11 or.

2022/03/24

- **JUSTIZIA MINISTERIOA. Administrazio-prozedurak. Kudeaketa informatizatua.** Ebazpena, 2022ko martxoaren 19koa, Justizia Zerbitzu Publikoaren Berrikuntza eta Kalitaterako Idazkaritza Nagusiarena, zeinaren bidez pertsona fisikoentzako ziurtagiri elektronikoa erabiltzeko baldintzak ezartzen diren, Justizia Administrazioko organo judizialekin eta gainerako organoekin presentzia telematiko bidez egindako jarduketetan interesa duten pertsonak identifikatzeko eta sinatzeko mekanismo gisa. Disposición 4628 - 8 págs.
- **OGASUNAREN ETA FUNTZIO PUBLIKOAREN MINISTERIOA. Zerga-informazioa.** Akats-zuzenketa, honako agindu honena: HFP/115/2022 Agindua, otsailaren 23koa, zeinaren bidez onesten den negoziazio zentroetako balio negoziatuen zerrenda, 2021eko laugarren hiruhilekoari dagokion batez besteko negoziazio balioarekin, ondarearen gaineko zergaren 2021eko aitorpenaren, eta baloreen, aseguru eta errenten gaineko urteko informazio aitorpenaren ondorioetarako, eta aldatzen den abenduaren 1eko EHA/3481/2008 Agindua. Horren bidez, balore, aseguru eta errentei buruzko urteko aitorpen informatiborako 189 eredu eta haren diseinu fisiko eta logikoak onesten dira, eredu horren barruko orriak

zuzenean ordenagailuz irakurri ahalko direnengatik ordezteko, eta hura telematikoki aurkezteko baldintzak eta prozedura ezartzen dira **Disposición 4629 - 4 págs.**

2022/03/25

- **OGASUNAREN ETA FUNTZIO PUBLIKOAREN MINISTERIOA. Zergak.** Akats-zuzenketa, honako agindu honena: HFP/1442/2021 Agindua, abenduaren 20koa, zeinaren bidez onesten diren Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari eta Zenbait Garraibideren gaineko Zerga Bereziari aplika dakizkiekeen batez besteko salmenta prezioak. **Disposición 4740 - 1 pág.**
- **GARRAIOAREN, MUGIKORTASUNAREN ETA HIRI AGENDAREN MINISTERIOA. Etxebizitza eskuratzea.** Akats-zuzenketa, honako errege-dekretu honena: 42/2022 Errege Dekretua, urtarrilaren 18koa, Gazteen Alokairu Bonua eta Etxebizitza Eskuratzeko 2022-2025 Estatu Plana arautzen dituen. **Disposición 4743 - 1 pág.**

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2022/03/24

- **LAN ETA ENPLEGU SAILA. EBAZPENA.** 2022ko martxoaren 18koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baita COVID-19aren ondorioz ezarritako aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen eragina jasan duten langileentzako ohiz kanpoko laguntzen bosgarren deialdiaren aldaketa. **1368 xedapena - 3 or.**

2022/03/25

- **XEDAPEN OROKORRAK. LEHENDAKARITZA.** 2/2022 LEGEA, martxoaren 10ekoa, Gazteriarena. **1380 xedapena - 53 or.**

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

2022/03/21

- **BATZAR NAGUSIAK. FORU ARAUAK.** 4/2022 Foru Araua, martxoaren 9koa, 2/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, otsailaren 22koa, baliozkotzeko dena, onespina emateko atzerrian kokatuta dauden ondasun eta eskubideei buruzko informazioa emateko betebeharraren araudia aldatzeari. **657 xedapena - 1 or.**

2022/03/23

- **ARABAKO FORU ALDUNDIA. ZERGA PREMIAZKO ARAUGINTZAKO DEKRETUAK.** Foru Gobernu Kontseiluaren 3/2022 Zerga premiazko araugintzako dekretua, martxoaren 15ekoa. Zerbitzu digital jakinen gaineko zerga onestea. **684 xedapena - 6 or.**
- **ARABAKO FORU ALDUNDIA. ZERGA PREMIAZKO ARAUGINTZAKO DEKRETUAK.** Foru Gobernu Kontseiluaren 4/2022 Zerga premiazko araugintzako dekretua, martxoaren 15ekoa. Finantza transakzioen gaineko zerga onestea. **685 xedapena - 8 or.**

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2022/03/21

- **BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA. HERRI ADMINISTRAZIORAKO ETA ERAKUNDE HARREMANETARAKO SAILA.** Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuaren 2845/2022 FORU AGINDUA, martxoaren 9ko, 2023.ko zerga Itunduetango Bizkaia Lurralde Historikoko Udalerrien partaidetza zehazterako beharrezko informazioa zuzkitzeko toki Erakundeek erabili behar duten eredia onartuz. **I-240 xedapena - 4 or.**

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2022/03/21

- **EKONOMIA SUSTAPENeko, TURISMOKO ETA LANDA INGURUNeko DEPARTAMENTUA.** 0136LI/2022 Foru Agindua, martxoaren 15ekoa, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko foru diputatuarena, %75 [WG] P/P oxido kuprosoaren formulatuan oinarritutako produktu fitosanitarioak lurrian aplikatzeko zenbait jarraibide ezartzen dituen, Gipuzkoako mendietan, Pinus radiata eta Pinus nigra sailei hosto galera eragiten dizkieten gaitz kriptogamikoei aurre egiteko. **578 xedapena - 3 or.**

2022/03/25

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** 8/2022 Foru Dekretua, martxoaren 22koa, interes orokorreko xedeen esparruan lehentasunezko mezenasgo jarduerak 2022. urterako ezartzen dituen. **1724 xedapena - 6 or.**

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** 168/2022 Foru Agindua, martxoaren 17koa, atzerrian kokatuta dauden ondasun eta eskubideei buruz informatzeko 720 aitortpen ereduak, eta honen aurkezpen modua eta diseinu logikoak onesten dituenak. **1632 xedapena - 23 or.**
- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** 169/2022 Foru Agindua, martxoaren 17koa, 2021eko zergaldiko pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga eta ondarearen gaineko zerga autolikidatzeko ereduak, eta aurkezpena eta ordainketa egiteko moduak, epeak eta tokiak onesten dituenak. **1631 xedapena - 132 or.**

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)

2022/03/22

- Batzordearen 2022/460 (EB) Betearazpen Erabakia, 2022ko martxoaren 4koa, zeinaren bidez aldatzen den 2021/788 (EB) Betearazpen Erabakia. Horren bidez, zenbait animalia-erresistentzia espezietan SARS-CoV-2ren infekzioak zaindu eta jakinarazteko neurriak ezartzen dira [C(2022) 1270 zenbakiarekin jakinarazia]. **L 93/191 xedapena - 2 or.**

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL Nº 2
HENAO, 26 - BILBAO